

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

256/2021 Foru Agindua, Arabako lehen diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuarena, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jarduneko eginkizunetan titularrak ez dagoelako irailaren 27koa, zeinaren bidez onesten baita luzatzea 2020-2021 ekitaldian jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzak gauzatzeko epea eta dirulaguntzak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 139/2020 Erabakiak onespena eman zion Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez araututako energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2020-2021rako deialdiari.

Erabaki horren hamaikagarren apartatua honako hau ezartzen da: Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Urriaren 13ko 475/2020 Erabakiaren bidez ebatzi zen laguntza horien esleipena.

2020-2021 urteetarako deialdian ezartzen denez, 2021eko urteari dagozkion gastuak 2021eko uztailaren 9a baino lehen gauzatu beharko dira, eta gastu horiek ordaintzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2021eko uztailaren 16a izango da.

Laudioko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana idazteko, udalerrian joan-etorrietarako modu jasangarriagoak sustatzeko. Dirulaguntza 2021 urterako esleitu zen.

2021eko maiatzaren 6an, Audioko Udalak idazkia bidali zuen dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea 2021eko azarora arte luzatzeko eskatzeko, arrazoi hauengatik:

- Laguntza eskabidearekin batera aurkeztutako memorian adierazten zen bezala, 10 hilabetezkoa zen Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana prestatzeko lanak egiteko aurreikusita zegoen epea, esleipendunarekin kontratua sinatzen zen egunetik zenbatzen hasita Kontratu hori 2020ko urriaren 23an sinatu zen, eta, beraz, prestazioa 2021eko abuztuan amaitzea aurreikusita dago.

- Horrez gain, kontuan hartzen badugu fakturak onetsi eta ordaintzeko eta laguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazioa prestatzeko behar den denbora, egokitzat jotzen dugu emandako dirulaguntza justifikatzeko epea 2021eko azarora arte luzatzeko eskatzea.

Onestea diruz lagun daitekeen jarduera gauzatzeko epea 2021eko abuztuaren 31ra arte luzatzeko eskaera, bai eta 2021eko urtealdiko diruz lagun daitekeen jarduketaren ordainketa justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa 2021eko azaroaren 5era arte aurkeztea ere.

Horregatik, Arabako lehen diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jarduneko eginkizunetan titularrak ez dagoelako, eta uztailaren 5eko Diputatu Nagusiaren 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua emandako ahalmenak erabiliz.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa Onestea 2021eko abuztuaren 31ra arte luzatzea jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntza lerroaren 2020-2021rako deialdiaren gauzatze epea, Laudioko Udalak eskatua.

Bigarrena. Onestea 2021eko azaroaren 5era arte luzatzea jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntza lerroaren 2020-2021rako deialdiko justifikazio agiriak aurkezteko epea, Laudioko Udalak eskatua.

Hirugarrena Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko jarduneko diputatua
M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA